

## Hizkuntza osasuna da


Paziente eta erabiltzailei laguntzeko lan egiten dugu OSATEKen, eta gure jardueretan komunikazioa da tresnarik garrantzitsuen.

Komunikazio ona kalitateko zerbitzuen giltzarria da. Komunikazio ona elkar ulertzeko trabarik sortzen ez duen komunikazio naturala da, pazienteari bere min eta arazoak lasai azaltzea ahalbidetzen dion komunikazio hurbila, egoki interpretatzen den komunikazio segurua, OSATEKeko profesionalen aholkuak erraz eta zehatz ulertarazten dituen komunikazio argi eta xehea.


OSATEKeko zerbitzuetako komunikazioa hobetzeko, paziente eta erabiltzaileei erraztu egin behar diegu eroso eta seguru sentitzen diren hizkuntzan aritzea.

Dakigunez, gure erabiltzaile askok nahiago dute zerbitzua euskaraz jaso: hobeto sentitzen dira, seguruago, sanoago. Horregatik, OSATEKen ahalegin guztia egin behar dugu herritar horien hizkuntza-aukera errespetatze aldera.



## ikurra, zerbitzu eta profesional elebidunak identifikatzeko

OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lehen Planak (2018-2022) aurrera egin ahala, gero eta gehiago gara kalitateko zerbitzua euskaraz eman dezakegun profesionalak. Hala ere, gure paziente eta erabiltzaileek sarri askotan zailtasunak izaten dituzte profesional elebidunok identifikatzeko orduan. Hori dela eta, eta Osakidetzan egiten den moduan,  ikurra sortu dugu, hemendik aurrera pazienteek eta erabiltzaileek jakin dezaten zein unitatetan eta profesionalekin egin dezaketen euskaraz erraz.

## Euskaraz ulertzen duten profesionalak ere, ezinbestekoak:

Gure profesionalen artean, badaude euskara-maila baxua edo ertaina dutenak: ikasten ari direlako, aspaldi ikasi zutelako eta erabiltzeko ohiturarik ez dutelako, eta abar. Profesional horiek gai dira laneko ohiko elkarrizketak ulertzeko, baina agian oraindik ez dira ausartzen euskaraz erantzutera. Profesional horiek ere guztiz ezinbestekoak ditugu euskararen erabilera sustatzeko prozesu honetan: pazienteari ulertzen diote eta, horrela, ez dute behartzen hizkuntza aldatzera. Profesional horientzat beste sinbolo bat sortu dugu beren-beregi: belarri bat duen e letra .

## “OSATEKen ere, euskaraz bai sano!” kanpaina

 eta  ikurrak OSATEKeko profesional eta erabiltzaileei ezagutarazteko asmoz, eta profesionalak zein herritarrek, OSATEKen euskaraz modu naturalean egitera animatzeko, kanpaina hau abiatu dugu.

Bi ikur horiek hainbat euskarritan banatu eta jarriko ditugu ikusgai paziente eta erabiltzaileen aurrean: identifikazio-txarteletan, mostradoreetako errotuluetan, karteletan, eta abar.

Egitasmo hau arrakastatsua izan dadin, OSATEKeko profesional guztion laguntza behar dugu: profesional euskaldunon eta euskaraz ulertzen dutenen esku-hartzearekin bereziki, baina baita euskaraz ez dakitenek hizkuntza-protokoloa zuzen beteta. Horrela, gure asistentzia-zerbitzuetako komunikazioa eta kalitatea hobetzeko aurrerapauso handia emango dugu, eta gure paziente eta erabiltzaileek benetan eskertuko digute.

**Kanpaina honetan parte hartu nahi baduzu, edo informazio gehiago nahi baduzu: [euskara@osatek.eus](mailto:euskara@osatek.eus)**



**OSATEKen ere,  
euskaraz bai sano!**

